

5 URTE

MAITE DUGUNA ELIKATZEN

Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

5 URTE MAITE DUGUNA ELIKATZEN



2014-2019

5 URTE ESKUTIK ESKURA

2013ko udazkenean egin zuen Errigorak bere lehen kanpaina, aurreko urtean Zazpiak Bat Harreman Sareak bultzatutako esperientzia oinarri hartuta. *Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka* lelopean, Nafarroa hegoaldeko produktuez osatutako ia 9.000 kutxa banatu genituen Euskal Herriaren luze-zabalean eta 112.000€ bideratu genituen bertako euskalgintza hauspotzera.


Lehen kanpainak lortutako harrera onaren ondotik, urte berriarekin **udazkeneko saskia osatu zuten produktu horiek eguneroko kontsumo ohituretara ekartzeko beste bide bat zabaltzea erabaki genuen**. Hala, denetik zekarten saskien orde, produktu bakunak kantitate handietan eskainiz, urte guztirako despentsa betetzeko proposamena egin zen *Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura* deitu genuen bigarren kanpainan. Apirilean oliba-olio birjina estra eskatzeko tartea zabaldu genuen, 5 litroko bidoietan. Ekainean, ildo beretik, kontserba-sortak eskaini genituen. Auzolanari esker, olio zein kontserbak errotan bertan edo kontserba-etxean duten prezio berean eskaini ziren.

Zalantza guztiak uxatuz, **oso harrera ona izan zuen proposamenak**. 30 herri ingurutatik egin genuen kanpaina lehen urte hartan, eta 30.000 litro olio eta 50.000 ontzi kontserba heldu ziren 1.500 bat sukaldetara. Hurrengo lau urteetan kanpainak izan duen hazkundera ikaragarria izan


da: 5 urtetan 240.000 litro olio eta 700.000 ontzi kontserba baino gehiago banatu dira, eta 2018ko kanpainan 6.500 etxetan egin genuen eskaera.

Kanpainaren planteamendua, oinarrian, bere horretan mantendu da 5 urteotan. Hala ere, nabarmen zabaldu da eskaintza eta, kontsumitzailerekin batera, asko hazi da parte-hartzen duten ekoizleen kopurua. Honez gain, 2017an azpimarratzeko aldaketa bi jasan zituen kanpainak: olio eta kontserbak bi txandatan eskatzetik **guztia batera eskatzeko planteamendura pasaginen** (banaketa eta ordainketa bi txandatan mantendu arren) eta **produktu guztiak ekologikoan ere eskaintzeko pausua eman genuen**.

Eskaeraren hazkundera eta eskaintza ekologikoaren aldeko hautuak **ekoizpenaren eremuan ere pausotxoak emateko aukera** zabaldu zizun. Zubi berriak egin ditugu ekologikoan ari diren nekazari eta elaboratzaileen artean eta lehen produktu ekologikoekin lan egiten ez zuten kontserbagileak langintza honetan hasi dira. Zubi berriak eraiki ditugu, era berean, sektoreko instituzioekin: CEPAEN-NNPEKrekin (Nafarroako Nekazaritza Produkzio Ekologikoaren Kontseilua), INTIArekin (nekazal elika-industriaz arduratzen den Nafarroako Landa Garapenerako sailaren menpeko enpresa publikoa) edo Nafarroako EHNErekin elkarlanean aritu gara.



— OLIO ESKAEREN BILAKAERA (LITROTAN) —



— KONTSERBA ESKAEREN BILAKAERA (ONTZITAN) —

*hainbat kasutan emaitza hauek ez datoz bat kanpainen ostean publiko egin izan ditugun zenbakiekin. Izan ere, ohikoa izaten da kanpaina ondoren, akatsak zuzenduta, aldaketak izatea. Edonola ere, hauek dira aurreko 5 urteetako kanpainetako eskaera errealak.

5 URTE MAITE DUGUNA ELIKATZEN

Zenbaketatik harago, 5. urteurreneko edizioan #ESKUTIKeskura kanpainaren oinarrian dauden balioei buruz hitz egin nahi dugu. Zer dago kanpaina honen atzean? Zer indartu nahian ari gara? Galdera hauei erantzuten saiatuko gara *5 urte maite duguna elikatzen* ideiarenean azpian.

produktuak gurean merkaturatzen. Izan ere, zertarako ekarriko ditugu zainzuriak antipodetatik hemen bertan primerakoak baditugu? Edo, zertarako joango gara inora gure produktuak saltzera hemen bertan haien gosez dagoen milaka kontsumitzaile arduratsu badugu?

Bertakotasuna elikatzen

5 urte daratzamagu, urruneko produktuak gure sukaldeetara ekarri eta bertako produktuak urruneko sukaldeetara eramanez, tokiko



5 urte, beraz, karbono aztarna murriztu eta paisaia mantentzeko bidean. Ekonomia bertokiratu eta lehenengo sektorea eta tokiko elikagaien industria txikia bultzatzeko pausuak emanez. Eta, nola ez, euskal lurraldeen arteko harremanak elikatzen.

Auzolana elikatzen

5 urte daramatzagu auzolana balioan jartzen, gauzak bestela egin daitezkeela frogatuz. Borondatezko lanean oinarritutako sareak ehuntzen, ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko distantzia laburtuz eta alde bientzat prezio zuzenak adostuz. Izan ere, ezin dugu ahaztu kasu honetan milaka hatz daudela #ESKUTIKeskura.

Burujabetza elikatzen

5 urte daramatzagu, beste era batean ekoizteko, beste era batean kontsumitzen. Berandu baino lehen gure elikadura-sistemaren gaineko erabakiak hartzeko gai izan gaitezen pausu txikiak emanez eta, bide horretan, nekazarien eta elaboratzaileen arteko harremana sustatzen.

Komunitatea elikatzen

Ekoizle arduratsuak, kontsumitzaile arduratsuak, euskaltzale borrokatuak, herrigintzako lagun nekazariak... 5 urte daramatzagu desberdinen arteko harremanak elikatzen eta komunitate anitza trinkotzen. Zubigintzan, batzuen grinak besteen egiteko.

ESKAERAK JASOTZEA

Martxoaren 7tik 22ra jasoko ditugu eskaerak, *online* zein eskuorri bidez. Hala ere, **eskaerak online egitera gonbidatuko dugu jendea** posible den guztietan. Izan ere, denon lana arintzeko, akatsak saihesteko eta datu-babeserako legedia betetzea errazteko bide zuzenena da norberak bere eskaera Errigoraren web gunean erregistratzea.

Edonola ere, eskuz jasotako eskaerak **martxoaren 25ean 9:00etrako Errigoraren web plataforman erregistratuta** egon beharko dira. Datuak sartzeko errigora.eus/sartu helbidera jo eta aurretiaz jakinarazitako erabiltzaile eta pasahitzak erabiliz sartuko gara. Eskaerak jasotzeko bi era egongo dira: taldeka, eskaera totalak sartuz ala, banaka, eskaera bakoitzaren informazioa sartuz.

Garrantzitsua da datuak behar bezala sartzea eta ondo erreparatzea, informazio horren arabera egingo baitugu eskaera, 25ean bertan, ekoizleek olio bidioiak prestatzeko denbora izan dezaten.

Datuak multzoka zein banaka sartu, **ezinbestekoa izango da eskuorriak tokian tokiko Errigorako arduadunari helaraztea**, guzti-guztiak jaso eta gorde ditzagun. Batetik, multzoka sartuta daudenak banaka sartzeko eta, hala, kontsumitzaileei kontserbak jasotzera noiz pasa behar duten gogorarazteko. Bestetik, eskuorri guztiak gordeta izan ditzagun, datu pertsonalen babeserari buruzko araudiak eskatzailearen baimena (eskuorriak jasotzen duena) eskura izatea agintzen duelako.

1

2

3

MARTXOAK 7 MARTXOAK 22 MARTXOAK 25

ESKAERAK JASOTZEKO LEHENEGUNA

ESKAERAK JASOTZEKO AZKENEGUNA

9:00ETARAKO ESKAERAK SARTUTA

ESKAINITZA

Eskaintzak azken urteetako ildoia jarraituko du, baina aurtengoan **bi berritasun nagusi izango ditu: arroza eta kamisetak**. Kamisetak olioarekin batera banatuko dira, marka ikustarazteko zein ko-

munitatea indartzeko asmoz (5€an eskainiko dira; ez dira, beraz, diru-iturri izango). Arroza, ostera, kontserbekin banatuko da, baina *online* bakarrik eskatu ahal izango da, stock mugatua baitugu.

PRODUKTUA	NEURRIA	EKOIZLEAK	PREZIOA
Oliba-olio birjina estra	5L	Ablitasgo kooperatiba, La Casa del Aceite	22€
Oliba-olio birjina estra ekologikoa	5L	La Casa del Aceite, Bardea, Enara, Biosasun	32€
Olio-barietate sorta (arroniz ekologikoa, arbekina ekologikoa, pikual konbentzionala eta enpeltre konbentzionala)	5L x 4	Bardea, Enara, La Casa del Aceite, Ablitasgo kooperatiba	108€



KAMISETAK (5€) ERE ESKAINIKO DITUGU, OLIOAREKIN BATERA BANATZEKO: HELDUENTZAT GRIS ILUNAK (2 EREDU) ETA MOREA HAURRENTZAT

PRODUKTUA	NEURRIA	EKOIZLEAK	PREZIOA
Pikillo piperrak	425ml-ko 12 ontzi	Iturri, El Escolar, El Agricultor	32€
Pikillo piper ekologikoak	250 ml-ko 12 ontzi	La Churta, Iturri, Ebrón	36€
Zainzuriak	425ml-ko 12 ontzi	Iturri, El Escolar, El Agricultor, Larrinaga	43€

Zainzuri ekologikoak	370 ml-ko 12 ontzi	La Churta, Iturri, El Escolar	45€
Orburuak	720ml-ko 12 ontzi	María Jesús, Ebrón	45€
Orburu ekologikoak	720ml-ko 12 ontzi	Ebrón	77€
Barazki-menestra	720ml-ko 12 ontzi	María Jesús, Almanaque	39€
Barazki-menestra ekologikoa	720ml-ko 12 ontzi	Ebrón	64€
Potxak	720ml-ko 12 ontzi	María Jesús	22€
Potxa ekologikoak	720ml-ko 12 ontzi	Almanaque	29€
Tomate frijitua	370 ml-ko 12 ontzi	Pedro Luis	15€
Tomate frijitu ekologikoa	370 ml-ko 12 ontzi	Enara, La Churta	17€
Kremak	500 ml-ko 12 ontzi	Pedro Luis	19€
Krema ekologikoak	500 ml-ko 12 ontzi	Pedro Luis	24€
Arroza (lido)	1 kg-ko 12 pakete	Alcaraván	21€
Arroz ekologikoa	1 kg-ko 12 paketa	Alcaraván	42€



AURTENGO BERRIKUNTZA NAGUSIA
ARROZAK DAKAR. ARGEDASEKO
‘EL ALCARAVÁN’ ETXEKOEK
JARRIKO DUTE. KILO BATEKO
12 PAKETEZ OSATUTAKO SORTA
EKOLOGIKOA —ARROZ ZURIA— 42€
ETA EZ-EKOLOGIKOA —LIDO— 21€.

Denbora faltagatik, irudietan arroz ekologikoak gaztelerazko etiketa darama, baina euskaratuta banatuko da.

EGUTEGIA

MARTXO HASIERA	kanpainaren prestaketa
MARTXOAK 7-22	kanpaina (eskaerak bildu)
MARTXOAK 25	eskaerak sartuta (9:00ak aurretik)
APIRILAK 5-11	olioa eta kamisetak herrietara (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Iparralde)
APIRILAK 11-15	olioa eta kamisetak herrietara (Nafarroa)
APIRILAK 23-26	olioa eta kamiseten ordainketak egin
MAIATZAK 22-25	kontserba- eta arroz-loteak herrietara (Bizkaia, Nafarroa)
MAIATZAK 27-29	kontserba- eta arroz-loteak herrietara (Araba, Gipuzkoa, Iparralde)
EKAINAK 3-7	kontserba- eta arroz-loteen ordainketak egin

KANPAINA
OLIOAREN ETA KAMISETEN BANAKETA
OLIOAREN ETA KAMISETEN ORDAINKETA
KONTSERBEN BANAKETA
KONTSERBAK ORDAINKETA

MARTXOA						
25	26	27	28	1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31
APIRILA						
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
MAIATZA						
29	30	1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31	1	2
EKAINA						
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30